# AUDIOA EGIN ETA ARGITARATU

## 1. Audacity eskuratu

- “eleanitz.ikasblog.net” helbidera joan eta
- Eskubiko zutabean, behean, “Lotura interesgarriak”
- Aukeratu komeni zaizuena : “.rar” ala “.zip”
- “Gorde fitxategia” aukeratu




- Audacity programa “atera” →




→



## 2. Audioa grabatu eta gorde

- Audacity abian jarri




- Grabatu, geratu eta MP3 gisa esportatzeko eskatu







- “lame.dll” fitxategia eskatzen duen oharra zabalduko zaigu. Non dagoen esango diogu. Beraz, esan baietz, eta “Audacity” karpetara joango gara, gero “ izeneko karpetara, “lame.dll” fitxategia markatu, eta “Abrir” sakatuko dugu.






- Audioari izena eman ("proba") eta gorde.

  Hemendik aurrera, grabatu ondoren, ondo gordeko ditu fitxategiak, izena jarri eta gero, noski.

## 3. Audioa interneteko hostalari batetara igo: “www.goear.com”

3.1. Audioak jasoko dituen zerbitzarian erregistratu

- “www.goear.com” helbidera joan
- Sakatu erdiko menuan, eskubian dagoen “Login / Register”




- Sakatu, pantailan urdinez ikusiko duzun “Register”.




- Eskatzen dituen datuak idatzi eta sakatu “Sign up”



- Erregistroa ondo egin dela adierazten duen mezua pantailaratzen da.
- Sakatu behean dagoen “Click here to join to user panel”.




## 3.2. Audio-fitxategia nire txokora igo

Nire audio-txokoan nago, “Txanela” erabiltzaile izena aukeratu dudanez, hori da azaltzen dena.

- “Upload” aukera sakatu




- Abestiaren fitxa osatu → “Arakatu” (ordenagailuan audioa bilatu) → “Upload”
- Igoera bukatutakoan, mezu bat azaltzen da. Emaitza ikusteko, sakatu “clicking here”






## 4. Audioa blogean txertatu eta argitaratu

### 4.1. Audioa entzun eta Blogean txertatzeko behar dugun kodea kopiatu

- Audio-erreproduktorea azaltzen da eta eskubian-behean, bi kode-zati. Beheko kodea kopiatu: “This song gin your site” dioena.




### 4.2. Audioa blogeko mezuan txertatu

- Ikasblog.net-era joan - “Izena eman” (erabiltzailea + pasahitza) – Eleanitz blog-editorean gaude.
- Idatzi – mezuari izenburua eman - idazteko kutxan azalpen-testu laburra idatzi.
- “Code” atalera pasa
- Lerro jauzia egin → Kopiatuta ekarri dugun kodea itsatsi
- “Gorde eta segi editatzen” eta “Preview” (argitaratu aurretik, ikusteko)



- Aurrebista ikusi. Dena ondo badago, edizio-leihora itzuli eta "Argitaratu"




4.3. Goear.com-era itzultzen zarenean

- Erabiltzaile izena eta pasahitza sartu eta gero, zure audio-txokoaren sartuko zara.
- Igota dituzun audioak ikusteko, sakatu goian-ezkerrean dagoen "Mi songs"




Igotako abestien zerrenda ikusiko duzu:

- Abestia entzun eta kodea eskuratzeko, sakatu tituluaren gainean ("abestia").
- Audioaren titulua edo deskribapenean aldaketak egiteko, sakatu "edit"
- Audioa ezabatzeko, sakatu "delete"

